

Gipuzkoako enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea sustatzeko programa.

III. ERANSKINA : ERALGIP

Urtea :2016 | Ekonomia Sustapena

DESKRIBAPENA

Enpresen balio jasangarria sustatzea, eta horretarako, aukera lurraldeak sortzea beren eskumenak modu adimentsuan aplikatuz, desberdintzearen eta dibertsifikatzearen bidez, eta produktu, zerbitzu, merkatu edo negozio eredu bihurtuz.

ENTITATE ONURADUNAK

- Gipuzkoan kokatutako enpresak;
- Gipuzkoan dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko erakundeak.

DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Diruz lagun daitezkeen jarduerak izango dira proiektuak garatzea (ikerketak, analisiak eta azterketak, laguntza tresnak sortzea, enpresa eraldaketako dinamikak eta esperientzia esperimentalak ezartzea) xede hauetarako:

- Enpresaren jakintza bereizgarria identifikatzea eta modu adimentsuan ustiatzea (oinarrizko eskumenak eta balioa sortzea), eta jakintza bereizgarri horrekin koherenteak diren gizartera eta merkatura proiektatzea, etorkizuna duten enpresa aukerak sortzeko;
- Erabiltzaileak eta bezeroak enpresetan eragile aktibo bihurtzeko prozesuak ; eta,
- Ekonomia zirkularra garatzera zuzendutako enpresa eraldaketako prozesuak.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Diruz lagungarriak izango dira erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatuan jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean.(Ikusi diruz lagungarriak diren kostuak 12.oinarrian)



DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Diru-laguntzak kostu hautagarrien % 75a izango dira, salbu eta ikerketak, analisiak, azterketak eta laguntza tresnak sortzea..., horiek % 100ekoak izango baitira.

EMATEKO PROZEURA

Lehiaketa bidezkoa, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA

Diru-laguntza hauek ez dira bateragarriak beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk, izan nazionala, izan Europar Batasuneko edo izan nazioartekoa, eman lezakeen helburu bereko subentzio, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin.

BETETZEKO EPEAK

Eskaerak aurkezteko epea: **2016ko irailaren 20an, goizeko 12:00etan amaituko da.**

Jarduerak hasteko epea: **2016ko urtarrilaren 1etik aurrera**

Proiektuen exekuzio data: **2017ko ekainaren 30a**

Proiektuak justifikatzeko data: **2017ko uztailaren 30a**

ARAUDI APLIKAGARRIA

Gipuzkoako enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea sustatzeko programa. III ERANSKINA - Enpresen eraldaketa produktu, zerbitzu eta negozio ereduen dibertsifikazioaren, desberdintasunaren eta balioaren ekarpenaren bidez.

ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak
<http://sustapena.gipuzkoa.eus>
- Diru-laguntzak kudeatzeko aplikatiboa
<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

JAKINTZA ETA ENPRESA JARDUERA SUSTAPENERAKO ZERBITZUA

Kudeaketa administratiboa: 943.113981

Kudeaketa teknikoa: 943.112217

sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus